# KANALAK




➔ **KOMUNIKAZIO KANALA:** Sare sozialen bidez (Instagram, Email, Whatsapp…) gure liburutegiaren publizitatea egingo dugu. Egindako aliantzekin ere gure enpresa ezagutuko dute (adibidez: EHUarekin egin dugun aliantzarekin). Honen bitartez, Ikascoffee, ikasteko edo irakurtzeko gune ezin hobea dela jakitea nahi dugu eta ez dela liburutegi arrunt bat. Gure bezeroak pozik baldin badaude, beste pertsona batzuei gomendatzea espero dugu.




*Irakaskuntza zentroetan eta kalean triptikoak banatu eta kartelak jarriko dira, gure zerbitzuak ezagutarazteko.




➔ **SALMENTA KANALAK:** Bezeroek gure zerbitzuaz gozatzeko Zorrozaurretik hurbil daukagun lokalera etorri behar dira. Beraz, salmenta zuzena dela esan dezakegu.
Sortu dugun publizitatearen bidez, bezeroek argi ikusiko dute lokalaren kokapena (Morgan kalea 27, Deustu) eta eskeintzen diren zerbitzuak: kafetegia, liburutegia, ikasteko eta hitzaldietarako eremua… Ordaintzeko hainbat aukera daudela jakinaraziko zaie ere eta guzti hori Ikascoffee-ren aplikazioan aurki daiteke.







➔ **BANAKETA KANALAK:** Gure negozioak banaketa kanal zuzena izango du, azken kontsumitzaileari salduko diogu bitartekaririk gabe eta horrek etekin-marjina handiagoa emango digu.

Anne Andrés, Araia Arce, Eider González, Peio Irastorza eta Asier Novella